



URTEKO TXOSTENA 2023

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA



Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



EDUKIA

LABURPENA IRUDIETAN _____	4
helburu orokorrak _____	5
proiektuaren deskribapena _____	6
IKT-AK INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEAN _____	7
IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA _____	8
Liburutegi ibiltaria – Biblioteca ambulante _____	8
Bularretik Mintzora programa- Mintzoan kux-kux _____	9
Zapatuko ipuina _____	11
Azalerako ipuinak (umeen irakurketa-kluba _____	12
Liburuen poltsa (umeen irakurketa-kluba) _____	13
Paperezko hegoak (umeen irakurketa-kluba) _____	14
Haur eta Gazteentzako Liburuen Nazioarteko Eguna _____	15
Jirabira jolasa _____	15
Ikasleentzako erakusketa didaktikoak _____	15
Itsaspeko bihotzak literatura aretoa _____	15
Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina _____	17
Liburutegiko tailerrak- Erabiltzaileen formazioa _____	18
Liburua, ate bat Kulturarako _____	20
Helduentzako irakurketa-kluba gaztelaniaz _____	21
Idazlearekin harixa emoten (irakurketa-kluba euskaraz) _____	22
Irakurketa errazeko klubak _____	23
Liburuaren Nazioarteko Eguna _____	24
Liburutegien Eguna _____	25
Hitzaldiak eta liburu-aurrezpenak _____	26
Meetings at the Library – Réunions dans la Bibliothèque _____	27
Erakusketak interesguneetan _____	28
kopuruak _____	30
Bisitak / Erabiltzaileak _____	30
Liburutegiko txartela duten erabiltzaileak _____	30
Erabilera ordutegi berezian _____	30
Katalogazioa eta funtsa _____	30
Herriko Bilduma _____	31

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
 Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



Liburuklik _____	31
Maileguak _____	31
Desideratak _____	31
Internet zerbitzuaren erabilera _____	32
Web-orria, OPAC-en egindako kontsultak eta sare sozialak _____	32
Web-orria _____	32
<i>OPAC (sareko katalogoa)</i> _____	32
Sare sozialak _____	32
Liburutegiko jardueretan izandako partaidetza _____	33
Erabiltzaileak _____	33
Liburutegira datozen pertsonak _____	34
Bazkideak _____	34
Funts bibliografikoa _____	36
Maileguak _____	36
Helduen atalean egindako maileguak _____	36
Umeen atalean egindako maileguak _____	39
Préstamo según el idioma _____	40
Mailegua sexuen arabera _____	41
Mailegua adinaren arabera _____	42
Automailegua _____	42
Liburutegiarteko mailegua _____	42
eLiburutegia zerbitzua _____	44
KONTUAK _____	45
Diru-sarrerak _____	45
Gastuak _____	45
prestakuntza _____	47

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
 Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE


Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



LABURPENA IRUDIETAN

2023ko
TXOSTENA



[Jarduera eta datuak bideo batean laburbilduak](#)



Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



HELBURU OROKORRAK

Gure zerbitzuak eta antolatzen ditugun jarduerak *gure misioa betetzera* bideratuta egoten dira beti, izan ere, gure egitekoa baita Liburutegia, bai fisikoki bai birtualki, topaleku bihurtzea, herritarrei liburutegien esparruan *kalitatezko zerbitzua* eskaintzeko, *irakurzaletasuna, etengabeko ikaskuntza eta kultur zabalkundea sustatuz*; horrekin batera, gordetzen duen *Eibarri buruzko funtsaren* azterketa eta ikerketa erraztea eta *informazioaren teknologietara iristeko* zentro bat izatea.

Zigilu elektronikorekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): 1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1 Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: DS-202400000512 https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE	30/01/2024 14:14:32



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Eibarrek 27.453¹ biztanle ditu eta horietatik 4.709 0-18 urte bitartekoak 0 dira.

Urtean zehar irakurketa sustatzeko antolatzen diren jarduera gehienak *programa egonkor* baten parte dira. Aspaldi ohartu ginen ekitaldi puntualen programazioak ez zigula balio gure erabiltzaileek Liburutegira etortzeko ohitura har zezaten, dela liburutegia *topagune* gisa erabiltzeko, dela *irakurketa* bila etortzeko gune gisa.

Beraz, normalean irakurketa-klubak, irakurketa sustatzeko lehiaketak, ipuin-kontalarien saioak eta hitzaldiren bat edo beste programatu ohi ditugu. Aldi berean, batzuetan kanpaina bereziren bat egiten dugu udalerrian gertatzen diren *efemerideak edo ekitaldiak* direla-eta. Gure jardueren hartzaileak pertsona helduak, umeak eta familiak dira. Ohiko erabiltzailea *fidelizatzea* bilatzen dugu, baina baita Liburutegia ezagutaraztea ere, inoiz etorri ez diren pertsonak etor daitezzen.

2023an, hauek dira Liburutegian egindako jardueren adierazleak:

Liburuaren erakusketa bibliografikoak, hitzaldiak, idazleekiko solasaldiak, poesia-errezitaldiak, liburuen aurkezpenak eta abar antolatzea, liburuen gomendioak egitea (irakurketa-gidak, buletin elektronikoak, bloga...)	145
Liburuetara eta liburutegietara hurbiltzeko kanpainak, ipuin-kontalariak, tailerrak, orri-markatzaileak eta gidak, marketina, bisita gidatuak, eta abar.	89
Jarduerak guztira	234
Parte-hartzaileak guztira	2.634

15 erakusketa bibliografiko

118 literatura-tertua

4 aurkezpen-liburu + irakurketa musikatu 1

7 irakurketa-gida

Ipuin-kontalarien 5 saio

84 tailer (hizkuntzak lantzea, bisita gidatuak, komiki-tailerrak, emanaldiak...)

¹ 2023/09/14 Kontsulta

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



IKT-AK INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEAN

Liburutegi-zerbitzuaren eta antolatzen diren jardueren zabalkunderako, honako tresna hauek erabiltzen ditugu:

Liburutegiaren webgunea: <http://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca>

Gainera, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko blog-plataformaren parte gara, eta gure haur-liburutegiko blogean esteka honen bidez sartzen gara:
<https://liburutegiak.euskadi.eus/eibar/es/inicio>

Sare sozialetan ere profilak ditugu: [Facebook²](#), [Twitter³](#), [Instagram⁴](#) (non gure berritasun bibliografikoak sartzen ditugun) eta batez ere Youtube⁵.

Saiatzen gara egunero gure sare sozialen profilen informazioa eguneratzen. Sarrerak blogean sartzeko maiztasuna antolatutako jardueren araberakoa da.

Web-orria Liburutegiaren informazio estatikoena eskaintzeko erabiltzen dugu, hala nola informazio orokorra, zerbitzuak, katalogorako sarbidea, eta abar.

Jardueren berri emateko, Eibarko Udaleko Kultura webguneko Berriak eta Agenda atala erabiltzen dugu, baita *gure bloga eta sare sozialak ere*.

Gainera, Liburutegiko langileek *kartelak* egiten dituzten jarduerak iragarri, Kultura Etxean eta Liburutegian jartzeko.

Antolatzen den guztiaren informazio testuala zein grafikoa, halaber, *herriko komunikabideei, ikastetxeei eta elkartei* igortzen zaie, hala dagokionean.

² <https://www.facebook.com/EibarkoLiburutegia/>

³ <https://twitter.com/EibarLiburutegi>

⁴ <https://www.instagram.com/eibarkoliburutegia/>

⁵ <https://www.youtube.com/user/eibarkoliburutegia>

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA

Liburutegi ibiltaria – Biblioteca ambulante



Deskribapena	Liburutegiak hainbat lankidetzaprograma sustatzen ditu Eibarko ikastetxeekin, "Liburutegi ibiltaria" izen orokorrarekin, irakurtzeko gaitasuna bultzatzeko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzeko lankidetzabat bilatzea helburu duena. Ekimen honetan bisita gidatuak egiten dira, erabiltzaileak hezi eta irakurzaletasuna bultzatu, liburu sorten aukeraketa eta maileguren bidez, eta gida bibliografikoak eginez.
Hartzaileak	Eibarko ikasleak eta ikastetxeak
Helburuak	Irakurtzeko gaitasuna bultzatzea Irakurzaletasuna sustatzea Baliabideak eskaintzea herriko ikastetxeetako zentzoei eta liburutegiei
Egutegia	Ikasturtean zehar
Bitartekoak	Liburutegiaren funts bibliografikoa erabiltzen da ikastetxeei maileguak emateko liburu-sortak prestatzeko. Erabiltzaileen formakuntza-saioak Gaikako gida bibliografikoak lantzea

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
 Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



Programaren arduraduna eta laguntzaileak	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	Pertsonal-gastuak
Balorazioa eta estatistikak	<p>2018an erronkatzat hartu genuen ikastetxeekin dugun harremana sendotzea eta hainbat bilera egin genituen, zein ziren guru jarduerak eta zer zerbitzu eskaini genezakeen azalduz. Harrez geroztik, ikastetxeek gero eta gehiago erabili dituzte Udal Liburutegiko zerbitzuak.</p> <p>Eskaini genuen zerbitzuetako bat liburu sorten mailegua izan zen. Orduz geroztik hauxe izan da erantzuna:</p> <p>2017: 316 mailegu.</p> <p>2018: 675 mailegu.</p> <p>2019: 1.590 mailegu.</p> <p>2020an, ikastetxeak eta Liburutegia itxita egon zirenez, ikastetxeetan egin zen mailegu-kopurua 491 izan zen, eta, 2022an berriz ere 788 maileguraino igo da. 2023an, egindako maileguak 897 izan dira.</p> <p>Jasotzen ari garen balorazioa oso ona da, eta horrek adore ematen digu bide horretan jarraitzeko eta ezarri dugun aliantza hau estrategikotzat jotzeko.</p> <p>Eibar BHI-k irakurketa-plan bat jarri du abian eta aurten lehen aldiz laga dizkiegu liburu-sortak.</p>

Bularretik Mintzora programa- Mintzoan kux-kux

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): 1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1 Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: DS-202400000512 https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE	30/01/2024 14:14:32





Deskribapena	Programa hiru zutabetan oinarritzen da eta irakurketa sustatu nahi du 0 eta 8 urte arteko umeen artean. Zutabe horiek Liburutegia, Eskola eta Familia dura.
Hartzaileak	0 eta 8 urteko neska-mutikoak eta gurasoak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Haur literatura bultzatzea (batez ere euskaraz) • Liburutegia kalitatezko bibliografiaz hornitzea • Haur literaturaren maileguak handitzea • Gurasoei, hezitzaileei eta umei irakurketaz gozatzeko guneak eskaintzea. • Gurasoei eta hezitzaileei boz gora irakurtzeko trebakuntza ematea. • Umeek konpainian irakurtzeko gune lasai bat izan dezaten lortzea. • Familiak kontzientziatzea umetan irakurtzeak duen garrantziaz. • Liburutegia ezagutaraztea hainbat arrazoiengatik hura ezagutzen ez duten familiei.
Egutegia	Urtean zehar.
Bitartekoak	Liburutegia arduratzen da liburuak erosteaz eta toki bat antolatzeaz Umeentzako Gelan. Ikastetxeen lankidetzak garrantzitsua da,



	ikasleak programako liburuak maileguan eramatera etortzen baitira Liburutegira.
Programaren arduraduna eta laguntzaileak	Liburutegia. Proiektuan ikastetxeek eta familiek hartzen dute parte.
Aurrekontua	0,00 €
Balorazioa eta estatistikak	<p>Bularretik Mintzora programaren ondorioz, handitu egin da Liburutegiaren erabilera.</p> <p>Egiaztatu dugunez, jende gehiago dator Liburutegira, eta Umeen Liburutegian dokumentu gehiago lagatzen dira programa hasi aurretik baino.</p> <p>847 liburu ditugu eskuragarri programarako, eta 2022an 2.564 mailegu egin dira.</p> <p>Maileguei buruzko datuak liburuenak dira gehienak, izan ere, gainerako euskarriak gero eta gutxiago eskatzen dira.</p>

Zapatuko ipuina



Deskribapena	Urtean zehar 6 ipuin-kontakteta saio egiten dira hilaren azken zapatuan. Aurten haietako bat bertan behera geratu zen.
Hartzaileak	3 urtetik gorako umeak.
Helburuak	Irakurzaletasuna bultzatzea ahozko literaturaren bidez. Aisialdirako aukerak ematea asteburuetarako.
Egutegia	Urritik apirilera arte, hil bakoitzaren azken zapatuan.



Bitartekoak	Liburutegiko langileak. Ipuin-kontalariak kontratatzea. Kartelak, eta abar. Saioak Areto Nagusian egin dira.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Gastua	1.452,00 € Beste saio bat Berdintasun Saila-Andretxeko aurrekontuaren kargura izan zen (330 €).
Balorazioa	Jarraipen bat egiten da honako hauek kontuan hartuta: saioan parte hartzen duen umeen kopurua, egun horretan zer eguraldi zegoen, saioaren kalitatea (ipuin-kontalariaren kalitatea, publikoa erakartzea lortu duen, eta abar). Inkesta bat pasatzen zaie parte-hartzaileei. Batez besteko balorazioa 8,72 izan da. 281 neska-mutiko etorri dira egin ditugun 5 saioetara.

Azalerako ipuinak (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena	Klub honetan lortu nahi dena da familiek toki bat edukitzea irakurketa partekatzeko.
Hartzaileak	1 urteko eta Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko geletako umeak, gurasoez lagunduta. Bi talde osatu dira.
Helburuak	Helburua da entzumen, ukimena, ikusmena, usaimena eta dastamena ate bat izan daitezela literaturara hurbiltzeko. Abestiak, ipuin laburrak, hitz-jokoak... berreskuratuko ditugu azaleko ipuinetan erabiltzeko. Halaber, liburuak eskaintzen dizkiguten hainbat baliabide ezagutuko ditugu.
Noiz	Urtarrietik maiatzera eta urritik abendura.



Bitartekoak	Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko langileak. Saioen dinamizatzailea Saroa Bikandi da.
Aurrekontua	3.887,40 €
Balorazioa	Lau talde izan ditugu uda arte eta hiru urritik abendura. 28 saio egin dira eta 205 umek hartu dute parte beren familiekin egindako saioetan, 93 mutiko eta 112 neskatila . Uztailean pasatu genuen inkestan balorazio orokorra 8,32 izan zen.

Liburu en poltsa (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena	Klub honetan lortu nahi dena da familiek toki bat edukitzea irakurketa partekatzeke.
Hartzaileak	Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko geletako umek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. geletakoak, gurasoez lagunduta. Lau talde osatu dira.
Helburuak	Irakurketa-kluba dinamizatzea, jarduerak, jolasak eta dinamikak sustatuz motibazioa eta liburura gerturatzea bultzatzeko, desiotik, interes propioetatik eta fantasia pertsonaletatik abiatuta.
Noiz	Urtariletik maiatzera eta urritik abendura.
Bitartekoak	Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko langileak. Saioen dinamizatzailea Saroa Bikandi da.
Aurrekontua	3.887,40 €



Ebaluazioa.	Bi talde izan ditugu uda aurretik eta hiru urritik abendura. 155 haurrek hartu dute parte egindako 17 saioetan, 64 mutikok eta 91 neskatilak.
-------------	---

Paperezko hegoak (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena	Garbi dago literaturak eta letren munduak aberastu egiten dutela ume eta gaztetxoek garapena. “Paperezko hegoak” programan tailer bihurtzen dugu irakurketa-kluba, eta saio bakoitzean, irakurri dena taldean lantzeaz gain, sormen-ariketa bat egiten dugu.
Hartzaileak	Lehen Hezkuntzako 3. kurtzoko ikasleak eta Bigarren Hezkuntzako 1. kurtzokoak.
Helburuak	Parte hartzaileek beldurra galtzen diote irakurtzen dituzten liburuak komentatzeari eta oso ondo pasatzen dute. Gainera, lortzen dugu umeak ez urruntzea erabat irakurketatik, eta aukera ematen diegu ikastetxean programatuta dauden baino liburu gehiago irakurtzeko.
Noiz	Urtariletik maiatzera eta urritik abendura.
Bitartekoak	Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu. Parte-hartzaile bakoitzarentzat liburu bat ekartzen da liburuarteko maileguan.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna Saioen dinamizatzailea Peru Magdalena izan da.
Aurrekontua	Guztira, 2.950,00 € .



Ebaluazioa.	Bi talde izango ditugu, eta 109 neska-mutikok parte hartu dute egindako 16 saioetan, 19 mutikok eta 90 neskatilak .
-------------	---

Haur eta Gazteentzako Liburu Nazioarteko Eguna

Jirabira jolasa



Deskribapena	Jolasean, erruleta bat dago bueltaka, eta galdera batzuei erantzun behar zaie. Liburu bat irakurri denean bakarrik jolasten da.
Hartzaileak	Lehen Hezkuntzako 1. mailatik aurrera.
Helburuak	Irakurketa modu ludikoan sustatzea. Informazio-bilaketa sustatzea jolasaren galderei erantzuteko.
Noiz	Apirilaren 17tik ekainaren 14ra
Bitartekoak	Erruleta, galdera-jolasak eta sariak (50 euroko bonu bat, puntu gehien lortu dituzten hiru pertsoneri liburuak erosteko, diploma bat, San Juango zapi bat, eta barraketarako fitxak.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiaren arduraduna eta umeen liburutegiko langileak.
Aurrekontua	156,00 € sarietan.
Ebaluazioa.	53 pertsonak eman zuten izena eta 38 iritsi ziren amaierara. Jolasean, bi hilabete horietan, 424 liburu irakurri ziren.

Ikasleentzako erakusketa didaktikoak

Itsaspeko bihotzak literatura aretoa





Deskribapena	Literatura gune honetan genero-berdintasuna lantzen da euskarazko haur literaturaren bidez. Horretarako, Galtzagorri elkarteak ibilbide artistiko-pedagogiko bat diseinatu du hezkidetzaren ardatz duena.
Hartzaileak	Batez ere pentsatua dago Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek bisita gidatuak egin ditzaten. Hortaz, bisita horiek ikastetxeekin hitzartuko dira. Familiarentzako saio bat ere egiten da.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Literatura kohezitzailea ezagutzera ematea bai neska-mutikoei bai helduei. • Artean eta estetikan heztea begirada artistikoa landuz. • Praktika pedagogiko kohezitzaile bat aurrera eramatea. • Imaginario kolektiboan dauden sexu eta genero estereotipoak gainditzeko aukera ematea.
Egutegia	Martxoaren 6tik 17ra.
Bitartekoak	Eibarko Errebal Plazia espazio berria erabili dugu.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegia, Galtzagorri elkartearen bidez. Udalaren Berdintasun Sailarekin lankidetzan.
Aurrekontua	1.392,00 € Beste 1.392,00 €, Berdintasun Sailak jarri ditu.
Balorazioa	Parte hartu zuten ikastetxeek balorazio positiboa egin dute. Erakusketan 226 ikasle parte hartu dute, 6 ikastetxetako 10 taldetan banatuta. Familien saiora 31 pertsona joan ziren. Ikastetxe bakar batek esan dio ezetz parte hartzeko eskariari.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
 Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina

Deskribapena	Egoaizia elkartearekin lankidetzan, 10. urtea da kanpaina honetan parte hartzen dugula. Apirilaren 24tik 30era, interesgune bat eta tailer bat eduki genituen Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren Astean
Helburuak	Jendea hezkuntzarekiko sentsibilizatzea.
Noiz	Apirilaren 24tik 30era, interesgunea. Apirilak 26: Haurrentzako tailerrak: "¡Leámos un cuento!"
Bitartekoak	Materialak, enpatian, tolerantzian, errespetuan, dibertsitatean eta berdintasunean oinarritutako errelatoekin. Papera tailerrerako.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna, Egoaiziarekin lankidetzan.
Aurrekontua	0,00 €
Ebaluazioa.	Interesguneako materialak ez dira ia erabiltzen. Nahiz eta ume gutxik parte hartu, uste dugu garrantzitsua dela arazo honetan kontzientziatzea.



Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
 Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



Liburutegiko tailerrak- Erabiltzaileen formazioa


<p>Deskribapena</p>	<p>Liburutegiko tailerra Eibarko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei dago zuzendua. Nahi duten ikastetxe guztiek har dezakete parte, irakasleek lagundurik.</p> <p>Tailerrak adin tarteetara daude egokituta.</p> <p>Haur Hezkuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • LIBURUTEGIAN KONTU-KONTARI Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailetakako ikasleei zuzendutako saioak; saioetan ikasleak estreinakoz gerturatzten diren Liburutegira. <p>Lehen Hezkuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • IRAKURTZEN BADAKIT: Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleei zuzendutako saioak. • EGUN BAT LIBURUZAIN Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleei zuzendutako saioak. • LIBURU ARTEAN Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei zuzendutako saioak. <p>Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa</p> <p>INFORMAZIOA HELBURU: Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetako ikasleei zuzendua.</p>
<p>Hartzaileak</p>	<p>Ikastetxeetako ikasleak eta kolektiboak.</p>
<p>Helburuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegi kontzeptura hurbiltzea. • Liburutegiko portaera-jarraibideak eta funtzionamendu-arauak ezagutzea eta jarraitzea. • Liburutegiaren espazioa ezagutzea. • Eskaintzen dituen zerbitzuak eta haiek erabiltzeko moduak ezagutzea. • Liburuak eta gainerako materialak sailkatzeko sistema ezagutzea, eta liburutegian orientatzen ikastea errotuluen eta seinaleen laguntzarekin. • Katalogoa erabiltzen ikastea. • Informazio-iturriak ezagutzea. • Bilaketa-prozesua egiten ikastea (ALFIN).



Noiz	Ikasturtean zehar, batez ere, urrian eta azaroan.
Bitartekoak	<p>Ordenagailuak (OPAC) eta jolasean erabilitako materiala: fitxak, eta abar.</p> <p>Jardueretan metodologia parte-hartzailea, ludikoa eta kooperatiboa erabiltzen da, baita baliabide eta tresna digitalak ere.</p> <p>Prestakuntza-blokeak ezartzean, ikasleen adina kontuan hartuta, saioetan lortutako ezagutza metagarria izatea bilatzen dugu.</p>
Proiektuaren arduraduna	Tailerrak Liburutegiko langileek egiten dituzte. Aurten interesa azaldu duten ikastetxeei bakarrik eskaini zaie.
Aurrekontua	0,00 € Pertsonal-gastuak
Ebaluazioa.	<p>Jarduera oso ondo baloratzen dute udalerriko ikastetxeetako irakasleek. 7 ikastetxe daude herrian eta normalean denek parte hartzen dute.</p> <p>Aurten, oraingoz, bisita hauek izan ditugu:</p> <p>6 saio ikastetxeetako taldeekin hitzartuak. 195 ikaslek hartu dute parte (60 neska eta 59 mutil)</p> <p>5 saio Helduen Hezkuntzako ikasleekin. Guztira 48 lagun (24 emakume eta 24 gizon).</p>



Liburua, ate bat Kulturarako



Deskribapena	<p>Ekimen hau zozketa bat da: irakurleen artean sarrerak zozketatzen dira bai Eibarko Udalak bai herriko beste talde batzuek antolatutako ekitaldietarako.</p> <p>Erabiltzaileak liburu bat maileguan hartzen duen bakoitzean, paper bat jasotzen du; gero liburua itzultzean papera entregatu behar du (bere datuekin), eta ikuskizunetara doan joateko zozketan sartzen da.</p>
Helburuak	Liburua entretenitzeko aukeratzten duten erabiltzaileak "sartzea".
Egutegia	Urtean zehar. Aurten ekainera amaiera arte bakarrik egin da.
Bitartekoak	Liburutegiko langileak eta Kultura Sailak ikuskizunetarako ematen dituen sarrerak.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegia
Aurrekontua	Sarreren kostua. Kulturako aurrekontuaren kargu.
Balorazioa	Bina sarrera zozketatu dira 40 ikuskizunetarako , horietatik 39 helduentzat, eta 1 haurrentzat; guztira 242 gonbidapen banatu dira, 97 emakumeen artean eta 24 gizonen artean .



Helduentzako irakurketa-kluba gaztelaniaz



Deskribapena	Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilera horiek pertsona batek koordinatzen eta dinamizatzen ditu, liburuen irakurketa gidatuz.
Hartzaileak	16 urtetik gorako pertsonak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea. • Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea. • Irakurleei aukera ematea beren lan pertsonala klubeko beste kide batzuen edo dinamizatzailearen iruzkin, balorazio eta abarrekina aberasteko. • Obra baten irakurketan sakontzea klubeko kideen eta dinamizatzailearen laguntzarekin, irakurtzerakoan sarri ihes egiten diguna aurkitu nahian.
Egutegia	8 saio egiten dira urtean, bat hilean behin.
Bitartekoak	Parte-hartzaile bakoitzari aukeratutako liburua ekartzen zaio Liburutegiarteko Maileguaren bidez.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna Dinamizatzailea: Peru Magdalena Arriaga
Aurrekontua	2.000,00 €
Balorazioa	Ikasturte amaieran inkesta bat egiten zaie parte-hartzaileei eta saioak dinamizatzen dituen pertsonari. Galderak ikastaroari, dinamizatzaileari, azpiegiturari eta plangintzari buruzkoak dira. 134 pertsonak hartu dute parte (105 emakume eta 29 gizon).



Oharrak	<p>Gure klubaz gain, beste 6 irakurketa-klubi lagatzen dizkiegu liburuak. Hain zuzen, hauexei: Pagatxa eta Biztu elkarteak eta Litertxoko-k antolatzen duena. Halaber, Irakurketa errazeko 4 talderi ere ematen diegu zerbitzua: Eibarko Egogain Zentro Gerontologikoko Eskuhartze psikosozialeko taldea, San Andres Egoitzako Fundazio Publikoko taldea eta AGIFES.</p> <p>Aurten Andretxearekin ere lan egingo dugu "Munduko emakumeen literatura" klub berriari liburuak eskaintzeko; aurten emakume idazle italiarrei dago dedikatuta kluba.</p>
---------	---

Idazlearekin harixa emoten (irakurketa-kluba euskaraz)



Deskribapena	Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilerak liburuaren egilea bertan dela egiten dira; idazleak bere ibilbideari buruz hitz egiten du, liburuan erabilitako literatura-prozesuaz, parte-hartzaileen galderei erantzuten die, eta abar.
Hartzaileak	16 urtetik gorako pertsonak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz irakurtzea bultzatzea • Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea. • Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea. • Irakurleei aukera ematea beren lan pertsonala klubeko beste kide batzuen edo dinamizatzailereen iruzkin, balorazio eta abarrekin aberasteko. • Obra baten irakurketan sakontzea
Egutegia	8 saio egiten dira urtean zehar, hilean bat, urtarriletik maiatzera eta urritik abendura bitartean.



Bitartekoak eta lankidetzak	<p>Parte-hartzaile bakoitzari aukeratutako liburua ekartzen zaio Liburutegiarteko Maileguaren bidez.</p> <p>...Eta kitto! Euskara Elkarteak lankidetzan ari da Liburutegiarekin jarduera honetan.</p> <p>Euskara bultzatzeko Udalak duen Plan Estrategikoaren barruan kokatzen da jarduera.</p> <p>Euskal Idazleen Elkarteak lagundu egiten du, idazleekin harremanetan jarriz eta saioaren zati bat diruz lagunduz.</p> <p>Aurten idazle hauek etorri dira: Antxiñe Mendizabal, Miren Agur Meabe, Usue Egia, Sonia González, Andoni Agirrezabala, Olatz Mitxelena, Lander Garro eta Maite Gurrutxaga.</p>
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal Gallastegui.
Aurrekontua	2.664,00 €
Ebaluazioa.	74 pertsonak parte hartu dute egin diren 8 saioetan (56 emakume eta 18 gizon).

Irakurketa errazeko klubak

Gure irakurketa-klubez gain, **irakurketa errazeko** 3 talderi lagatzen dizkiegu liburuak. Hain zuzen, hauexei: Eibarko **Egogain** Zentro Gerontologikoko Esku-hartze psikosozialeko taldea, **San Andres Egoitzako** Fundazio Publikoko taldea eta **AGIFES**.

Gainera, toki berezi bat dugu Liburutegian, non irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei irakurketa errazeko liburuak eskaintzen dizkiegun.

Talde hauei **16 lote** laga dizkiegu, **160 libururekin**.

Gainera, toki berezi bi ditugu Liburutegian, non irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei irakurketa errazeko liburuak eskaintzen dizkiegun.





Liburuaren Nazioarteko Eguna



Deskribapena	<p>Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Liburutegiak ikuskizun berezi bat eskaini zuen, Maite Arroitauregi Mursegoren eskutik.</p> <p>"Biblioteken lana". Zer da zuentzat liburutegia? Liburutegia desira eta nahien artxibo bat da, arreta-zentro bat, "begien bankua", arimaren ospitalea.</p> <p>Mursegoren saio berezia, Harkaitz Cano, Katixa Agirre, Itxaro Borda, Miren Amuriza, Koldo Izagirre, Beñat Sarasola eta Martxel Mariscalen testuekin.</p>
Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Liburuaren Eguna ospatzea eta helduentzako ezohiko jarduerak eskaintzea • Irakurzaletasuna bultzatzea

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **1e3ab60acfa439d3c91aec111e722c48b84bb3a1**
 Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202400000512**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE

Data / A día:

30/01/2024 14:14:32



Noiz	Apirilak 23
Bitartekoak	Pertsona baten kontratazioa eta Liburutegiko langileak
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	Gastua: 1.331,00 €
Ebaluazioa.	54 pertsona.

Liburutegien Eguna



